

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Aurizberriko Liburutegiak beste ibilgailu bat dauka gaurtik aurrera, maileguan harturiko liburuak etxeetara banatzeko

Nafarroako Gobernuak eskuratu du, eta Aurizberriko liburutegia 1997tik eskaintzen ari den zerbitzuari erantzun nahi dio

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 17

Nafarroako Gobernuak, Liburutegi Zerbitzuaren bitartez, 22.000 euro bideratu ditu maileguan harturiko liburuak etxeetara eramateko furgoneta bat erostera eta egokitzera, [Aurizberriko Liburutegian](#) erabiltzeko.

Berragu izenez ezagutzen den zerbitzu hori 1997tik eskaintzen zaie eskualdeko udalerriei.



Agós, Maestro, López Jurío, Landabere eta Liburutegi Zerbitzuko ordezkariak, furgonetaren ondoan.

Gaur entregatu da ibilgailu berria, hauen partaidetza izan duen ekitaldian: Dori López Jurío Kultura zuzendari nagusia; Asun Maestro Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria; Mikel Landabere Aurizberri-Espinaleko Kontzejuko eta Berragu Liburutegi Zerbitzuen Mankomunitateko presidentea; Berragu Liburutegi Zerbitzuen Mankomunitateko kideak; eta Aurizberriko Eskolako ikasleak eta irakasleak, besteak beste.

Orain arte, zerbitzua liburutegian bertan lan egiten duten kideen ekimenez eta borondatez eskaini da, proiektuaren bultzatzailea izan zen Martín Saragueta liburuzainaren (bera izan zen liburutegiaren arduraduna 2013ra arte) eta 2013an Aurizberri Liburutegian lanean hasi ondoren zerbitzuaren jarraipena bere gain hartu zuen Mari Mar Agós egungo liburuzainaren bitartez. Gaur arte, zerbitzua liburuzainen ibilgailu pertsonaletan eskaintzen zen, eta kilometroen eta erregaien gastuak Berragu Liburutegi Zerbitzuen Mankomunitateak hartzen zituen bere gain.

Aezkoa, Arce, Erro, Luzaide, Burgete eta Aurizberriko 400 erabiltzaile baino gehiagok liburuaren mailegu zerbitzua beraien etxebizitzetan goza dezakete. Hogei urte baino gehiago martxan daraman ekimenaren xedea liburutegi zerbitzua hurbiltzea da, geografiaren ikuspegitik oso sakabanaturik dagoen eta biztanleria zaharkitua duen gunean.

Mailegu proiektuak Aurizberriko mendi batetik hartu zuen Berragu izena. Zerbitzua norbanakoei eskaintzeaz gain, beste kolektibo batzuei ere ematen die zerbitzua, ikastetxeei, Irati Irratiari edo Amma Ibañeta egoitzari,

besteak beste. Liburuzainak astean lau ibilbide egiten ditu, herri bakoitzari zerbitzua emateko; 250 kilometro inguru hilean.